

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

### **HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: 2026RAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK; KRONIKA**

Dobera Euskara elkarteak **Kronika egitasmoa bideratzeko** 2026rako egitasmoa eta aurrekontuak aurkeztu ditu.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udalaren aldetik 70.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurreikusi dute.

Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2026ko udal aurrekontuetan 70.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara Elkartearen **Kronika** egitasmorako, eta diru kopuru hori bideratzea proposatu du.

Hitzarmenean jasota dagoenaren arabera honela egingo da ordainketa:

Ordainketa era:

2026ko martxoan	52.500 €
2027ko otsailean Likidazioa	<u>17.500 €</u>
Guztira	70.000,- €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak otsailaren 26ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

1.- 2024ko martxoaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako hitzarmena Hernaniko udalak Dobera Euskara Elkartearekin sinatutakoa, Kronikaren egitasmoa bideratzeko, berritzea.

2.- Onartzea **Kronika** egitasmoa bideratzeko 2026ko udal aurrekontuetan jasota dagoen diru laguntza bideratzea: 70.000 €. AD-2026-254

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2026. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko diru laguntzak".

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea  
Behin-behineko udal Idazkaria  
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoen bidez egiazta dezakezu.

